



GARBITANIAKO ZERBITZU JURIDIKOETARAKO TEKNIKO BAT KONTRATATU ETA LAN POLTSA ERATZEKO HAUTAKETA PROZESUAREN OINARRIAK

1.- OINARRIEN XEDEA

Oinarri hauen xedea Garbitania Zero Zabor, S.M.en zerbitzu juridikoetako tekniko bat kontratatzeke eta lan-poltsa eratzeko hautaketa prozedura arautzea da.

Garbitania Zero Zabor S.M.ek zehaztu beharko du lanaldia, betiere lanpostuaren izaeraren eta premien arabera, unean uneko lanpostu hutsak betetzeko, aldi baterako programak egiteko, eginkizunen pilaketagatik, behin-behineko beharrak betetzeko eta hala badagokio, lanpostuak horrela eskatuko balu, behin betiko kontratazioak egitea posible izango da. Kasu horretan, kontuan hartu beharko da enpresak, legeak ezarrita, bete behar duen %2ko erreserba pertsona desgaituei dagokionez.

Garbitania Zero Zabor S.M.k zehaztu beharko du lanaldia, betiere lanpostuaren izaeraren eta premien arabera.

Zerbitzu juridikoetako teknikoaren urteko ordainkizun gordina 42.799,88 € izango da. Soldata hori kontzeptu guztiengatik izango da, eta 12 hileko ordainketatan eta aparteko bitan, abenduan eta ekainean, egingo da.

Hautaketa lehiaketa-oposizioa prozesua gainditzen duten izangaiek lan-poltsa eratuko dute, lortutako puntuen arabera. Lan-poltsa hori erabili ahal izango da: Garbitania Zero Zabor S.M.k izan ditzakeen aldi baterako lan-premiak betetzeko, unean uneko lanpostu hutsak betetzeko, aldi baterako programak egiteko, eginkizunen pilaketagatik, behin-behineko beharrak betetzeko eta hala badagokio, lanpostuak horrela eskatuko balu, behin betiko kontratazioak egiteko.

2.- LAN BALDINTZAK ETA EGINKIZUNAK

Lan-saioa Garbitania Zero Zabor S.M.k zehaztutakoa izango da, zerbitzuaren premien arabera. Lanegunak eta ordutegia Garbitania Zero Zabor S.M.k urtean-urtean finkatutakoak izango dira, betiere lanpostuaren izaeraren eta zerbitzuaren premien arabera.

Deialdi honen xede den lanpostuaren EGINKIZUNAK, besteak beste, ondoko hauek dira:

1. Garbitania Zero Zabor S.M.ko arlo ezberdinei lege aholkularitza eman, kudeatzaileak unean uneko zehaztutako lan-banaketari jarraiki.
2. Aholkularitza hori emateko beharrezko diren kudeaketa, azterketa eta proposamenak egin
3. Bere arloko espedienteetan parte hartu, aholkularitza juridiko eta tekniko eskaini (pertsonala, kontratazioa, ondarea, etab.) eta beharrezkoak diren txostenak idatzi
4. Prebentzio, segurtasun eta lan-osasun zerbitzuaz arduratu kanpo zerbitzuarekin batera: Espedienteen kudeaketa eta izapidetzea eta indarrean dagoen



- prebentzio, segurtasun eta lan-osasunari dagokion legedia aplikatzea Garbitaniako pertsonalari. Osasun eta prebentzio batzordean parte hartu.
5. Kontratazio mahaiko edota bestelako Batzordeetako idazkaritza lanak egin, hala dagokionean: deialdia, lizitatuzaileei jakinarazpenak, web-orrian iragartzea, aktak, koordinazio orokorra (kideen agenden koordinazioa, sinadurak, e.a.)
 6. Entitatearen ondare inbentarioaren eguneratzea eta kudeaketaz arduratu
 7. Kontratazio espedienteak antolatu, gainbegiratu eta izapidetu; eta iragarkiak prestatu eta aldizkari ofizialetara bidaltzeaz arduratu. Kudeatzailearekin eta teknikoekin batera plegu administratibo zein teknikoak prestatu
 8. Kontratuak iraungitzeko, modifikatzeko, etab. izapide administratiboak antolatu eta gainbegiratu, eta, beharrezkoa izanez gero, baita horien lagapen eta azpikontratazioa ere
 9. Eskaintzen balorazioa eta puntuaketaren prozesua zuzendu
 10. Aldundiko kontratazio zentralekin egin beharreko izapideak bideratu, eta kontratu eratorrien aukerak aztertu
 11. Kontratu txikien espedienteak bete (memoriak, aurrekontuak, fakturak eta espedientearen onarpena) eta artxibatu
 12. Giza baliabideen kudeaketa sistemak egunera mantentzeaz arduratu: zereginen eskuliburua, prestakuntza plangintzak, lanpostuen balorazioa, lanpostuen zerrenda, langilegoaren osasun azterketak, lan-egutegi eta -ordutegiak, diziplina gaiak, e.a.
 13. Giza baliabideen beharrianak proposatu eta haien aurrekontuaren proposamena eta kontrola burutu kudeatzailearekin batera. Pertsonal gastuak proposatu eta kontrolatu, euren kontrataziorako arauak egunean mantendu eta aplikatzen direla ziurtatu
 14. Langileen beharrianak planifikatu, definitu eta koordinatu eta baita formakuntza-, eguneratze- eta birziklatze-planak ere
 15. Lan-eskaintza publikoaren garapena eta prozeduraren antolakuntza eta kontrola burutu eta hautespen-epaimahaietan parte hartu
 16. Langileen hautatze prozesuetan parte hartu, bere lanpostuaren sailkapenarekin bat datorrenean
 17. Prozeduren normalizazioa bultzatu: Prozeduren eskuliburua, espedienteen kudeaketa, dokumentuen ereduak, barne funtzionamendurako gidak, jarraibideak, etab., kudeatzailearekin elkarlanean
 18. Langileren batek istripuren bat izango balu, dagokion txostena idaztea
 19. Sozietatearen dokumentu ofizialez arduratu (ziurtagiriak, botereak, etab.). Egin beharreko aldaketak eskritura publikoan jaso, hala badagokio
 20. Prozeduren normalizazio lanetan kudeatzailearekin batera lan egin
 21. Urteko kudeaketa-planaren proposamena eta aurrekontu proposamenean eta jarraipenean kudeatzaileari lagundu.
 22. Diru-laguntza eskaeren tramitazioan lagundu
 23. Ingurumen zuzenbidearen eremuan ematen diren aldaketen jarraipena egin, eta estrategia berrien diseinuan parte hartu
 24. Gardentasuna eta datuen babesaren legearen aplikazioaz arduratu
 25. Kudeatzailearen ordezkapenak egin, horretarako beharra dagoenean (bajak, oporraldiak, etab.)



26. Beste erakunde, entitate, profesional eta antzekoekin bere lana burutzeko beharrezkoak diren harreman eta kontaktuak garatu
27. Zehaztutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren, eta bere lanpostuaren sailkapenarekin bat datozen eta horrela eskatzen zaizkion beste edonolako lanak burutu

3.- BALDINTZAK

3.1 Deialdian parte hartu ahal izateko, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- a) 16 urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaez erretiroa hartzera behartzen duen adina bete gabe izatea
- b) Zuzenbidean lizentziatura titulu ofizial edo homologatua edukitzea edo hura eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea; edo horien baliokide den gradu titulua izatea
- c) Europar Batasuneko kide diren estatuetakoko baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea

Parte hartu ahal izango du, baita ere, Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalitatea dutenen ezkontideek, duten nazionalitatea dutela, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagoak badira, edo adin horretatik gorakoak, baina euren kontura, alegia, emantzipatu gabe bizi direnak.

Era berean, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan bizi eta aurreko paragrafoetan sartu gabe dauden atzerritarrek. Hauek aukeratuak izango balira, kontratuaren objektu den jarduera burutzeko administrazioaren baimena dutela frogatu beharko dute, aipatutako kontratua egin baino lehen.

- d) Diziplinazko espedientearen bidez inongo Administrazio Publikoren Zerbitzutik baztertua ez izatea, eta funtzio publikoak betetzeko ezgaiturik ez egotea.
- e) Lanpostuen eginkizunak normaltasunez betetzea galaraziko dion gaixotasunik nahiz muga fisiko edo psikikorik ez izatea.
- f) Bateriaezintasunik edo ezgaitasun legalik ez izatea, Herri Administrazioaren Zerbitzuan dagoen pertsonalaren bateraezintasuna arautzen duen abenduaren 26ko 53/1984 Legean xedatutakoaren arabera. Dena den, kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezina burutzen ari direnek aukeratzeko eskubidea erabili ahal izango dute, aipatutako legearekin bat etorriz.
- g) Diziplina espediente bidez estatuko, autonomi erkidegoetako edo toki-erakundeetako zerbitzutik kanporatu ez izana; eta funtzio publikoak betetzeko ezgaitua ez izatea.



h) 3. hizkuntz eskakizunari dagokion euskara maila, EGA, C1 edo baliokidea den titulua.

i) B gida-baimena edo baliokide baten jabe izatea eta gidatzeko gaitasuna izatea.

3.2 BALDINTZA HORIEK GUZTIAK ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA AMAITZEN DEN EGUNERAKO BETE BEHAR DIRA. BALDINTZA HORIEK MANTENDU BEHAR DIRA PROZESU GUZTIAN ZEHAR KONTRATATUA IZAN ARTE.

3.3 Lanpostuari dagozkion beste zehaztasunak

a) Udalhitzeko hitzarmenaren aplikazioa.

b) Dagokion Udalhitzeko maila: 18

4.- ESKABIDEAK

Izangaiek 3. oinarrian jasotako baldintza guztiak betetzen dituztela, eta merituetan baloratzen dena, guzti-guztia, adierazi behar dute hautaketa-prozesuan parte hartzeko aurkezten den eskabidean. (I. eranskina).

Eskaera horiek Garbitania Zero Zabor S.M.ko hautaketa batzordeari zuzenduko zaizkio.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak ondoko baldintza hauek bete beharko ditu atzera bota ez daitezzen:

a) Hirugarren oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkiola.

b) Eskabidearekin batera, ondoko agiriok erantsiko dituzte:

- Hautagaiaren pertsonalitatea eta gaitasuna egiaztatzeko dokumentazioa: nortasun-agiri nazionala edo baliokidea (kopia konpultsatua)
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren originala edo kopia konpultsatua
- Curriculum Vitaea
- Hizkuntza eskabideak betetzen direla ziurtatzen duen agiri originala edo kopia konpultsatua
- Lan-bizitza jasotzen den agiria
- Gidabaimena (kopia konpultsatua)
- Merezimendu guztien zerrenda aurkeztu behar da, oinarri hauen I. eranskinean jasotako eredia erabiliz, merezimendu horiek egiaztatzen dituzten agiriak eta guzti. Dokumentu horiek, jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak izan beharko dira. Ezin izango da baloratu eskabideak aurkezteko epearen barruan aurkeztu eta frogatu ez den merezimendurik, ezta ere, epearen barruan aurkeztuta egon arren, ondoren frogatutako merezimendurik.



1. Lan-esperientziari dagokionez, enpresa agirian argi adierazi beharko da alegatzen den lana puntuagarri den esperientzia motakoa dela.
2. Prestakuntzari dagokionez, ez dira inolaz ere kontuan hartuko merezimenduen taulatik kanpo zerrendatu den merezimendurik. Gainera, taulan bertan ikastaroen ordu kopurua adierazi beharko da, eta aurkeztutako titulueta ordu kopuru horiek egiaztatu ahal izango dira. Tituluena ageri ez diren kasuan, ikastaroaren ikasgai-zerrenda ofiziala aurkeztu beharko da ordu kopuruarekin, kontuan hartu ahal izateko.

ALEGATZEN DIREN MERITUAK EGIAZTATZEN DITUZTEN DOKUMENTUAK PARTE HARTZEKO ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTUKO DIRA DEIALDIAN EZARRITAKO EPEAN. BERANDUAGO AURKEZTEN DIRENAK EZ DIRA BALORATUKO.

Deialdian parte hartzeko eskakizunak nahiz merezimenduak egiaztatzeko, jatorrizko agiriak edo konpultsatutako kopiak aurkeztu behar dira. Garbitaniak ezin du dokumenturik konpultsatu.

Kopiak, gaitasuna duen fede emaile publiko baten aurrean konpultsatu ahal izango dira. Hori egin ahal izateko, jatorrizko agiria eta kopia aurkeztu behar dira.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gero, eskaerak eta perfilen egokitasuna aztertuko da.

5.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Eskaerak, behar bezala beteta, ondorengo helbidera igorriko dira:

- **Garbitania Zero Zabor S.M.ren bulegoetan** (Lastaola Poligonoa 3, A-12 eraikina, Ereñotzu auzoa, Hernani, 20120) aurkeztu ahalko dira, 9:00etatik 14:00etara.
- Horrez gain, eskabideak **postetxean** aurkeztu ahal izango dira, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura erkidearen 39/2015 legeak dion bezala, hurrengo helbidera: Lastaola Poligonoa 3. A-12 eraikina. 20120 (Hernani).

Aipatutako Legearen 38.4 artikuluari jarraiki eskabidea postetxean aurkeztu bada, irekitako kartazalean aurkeztuko da, postetxeko funtzionarioak data eta zigilua jar diezaion, eskabideak aurkezteko epean aurkeztu dela ziurtatzeko. Hori ezinbesteko baldintza izango da eskabideari GARBITANIA ZERO ZABOR S.M. sarrera-erregistroan postetxean aurkeztutako datarekin sarrera emateko. Eskabideari jarri behar zaio zigilua.

Horretarako azken eguna, 2020ko martxoaren 13a izango da.



6.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

6.1 Osaketa

Epaimahai kalifikatzaileak Garbitania Zero Zabor S.M.ren Administrazio Kontseiluak izendatutako izango dira, zehazki ondorengoak:

- Hernaniko ingurumen zinegotzia (Epaimahaiburua)
- Usurbilgo zerbitzuen zinegotzia. (Epaimahaikidea)
- Astigarragako alkatea. (Epaimahaikidea)
- Ingurumen teknikaria (Epaimahaikidea)
- Langileen ordezkaria (Epaimahaikidea)
- Kudeatzailea (Idazkaria)

Hautaketa batzordeari dagokio:

- Eginiko froga guztien edukia eta emaitzak baloratzea
- Oinarri hauek interpretatu eta zalantzak argitzea
- Administrazio Kontseiluari kontratatu beharreko hautagaia proposatzea

Epaimahaietako titularrek, epaimahaiburuak, idazkariak eta gainerako kideek, beren ordezkioak izango dituzte; ezin izango du jardun, gutxienez, kideen erdiak - titularrak zein ordezkioak – baino gehiago ez badaude.

Epaimahaiko kide guztiek izango dituzte hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, honek ez baitu botorik edukiko. Bertaratutakoen botoen gehiengoz hartuko dira erabakiak eta hainbanaketa egonez gero, epaimahaiburuaren botoak erabakiko du.

Gaixotasun bat edo hutsegiteren bat egonez gero, eta orokorrean, pisuzko arrazoiren bat dagoenean, organo kolegiatuko kide titularren lekuan ordezkioak arituko dira. Hutsegite, gaixotasun edo bestelako arrazoi legalen bat gertatzen bada, presidentearen ordezkio bere ordezkioak jardungo du, eta ordezkioak ezingo balu, hierarkia, antzinasun eta adin handieneko epaimahaikidea arituko da. Idazkariaren aldi baterako ordezkapena, etorri ezin delako edo gaixorik delako, bere ordezkioak beteko du edo, hala ez balitz, idazkariaren beraren akordio bidez egingo da.

Epaimahaiak erabateko independentziarekin, diskrezionaltasun teknikoarekin eta objetibotasunarekin jardungo du, eta organo eskudunak haren izendapen-proposamenak bete beharko ditu. Era berean, oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu eta deialdia behar bezala garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu.



Komunikaziorako eta bestelako gora beheretarako, hauxe izango da Epaimahaiaren helbidea: Garbitania Zero Zabor S.M., Lastaola Poligonoa 3, A-12 eraikina, Ereñotzu auzoa, 20120 Hernani.

6.2 Aholkulariak:

Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

6.3 Jarduketa prozedura:

- a) Hautaketa batzordeak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.
- b) Hautaketa batzordeak froga bakoitza baloratzeko irizpideak alde zuzenetik erabakiko ditu. Irizpide horiek zehatzak eta argiak izango dira erabat eta puntuaketa egin duten pertsonen zorroztz aplikatuko beharko dituzte.
- c) Hautaketa batzordeak proposaturiko izangaiekin zerrenda osatuko da, deialdi honen objektua den behin-behineko zein behin betiko beharrak betetzeko.
- d) Izangai batek ere gaitortuko ez balitu baztertzailak diren proba guztiak, deialdia hutsik aitortuko da.

7.- HAUTAKETA PROZEDURA

Izangaiek hautatzeko prozedura honakoa izango da. Hautaketa prozedurak hiru fase izango ditu: oposizio-aldia, lehiaketa-aldia eta elkarrizketa. Oposizio-aldian 50 puntu emango dira gehienez, lehiaketa-aldian 33 puntu eta elkarrizketan 20 puntu. Guztira 103 puntu.

Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo da.

Garbitania Zero Zabor S.M.k ariketak egiteko deialdian jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiek -baita ezinbesteko arrazoiengatik bada ere, legeak babesten dituen kasuak salbu-, hauta-prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

Epaimahaiak hautapen-prozeduratik kanpo utzi ahal izango du probetako edozeinen garapen normala eragozten duen edo berdintasun, meritua eta gaitasun printzipioekin bat leialtasunik gabe jokatzeko eragiten duen iruzurrezko edozein jardura burutzen duen pertsona oro, jokaera hori jasota lagaz, dagozkion bilkurako aktan.

Era berean, ez da onartuko hautapen-prozesuko inolako probatan zehar dispositibo edo bitarteko elektronikorik erabiltzea edo erabiltzea, tresna horiek lehen aipatutako printzipioak saihestu edo urratzeko erabil daitezke-eta.



Izangai batek arau horiek urratzen baditu, une horretan bertan geratuko da kasuan kasuko probatik zein hautapen-prozesutik kanpo, eta, horrenbestez, ez da inola ere prozesu horretatik ateratzen den lan-poltsan sartuko.

1.- Fasea: Oposizio-aldia (Gehienez 50 puntu)

Aldi honetan, epaimahaiaren esku geratuko dira, besteen artean: Garbitaniaren lan-hizkuntza nagusia euskara izanik, frogak egiteko erabili ahal izango den hizkuntza zehaztea; frogak zenbat egunetan egingo diren erabakitzea; eta frogetan araudiaren erabilera erabakitzea. Horiek guztiak, azterketarako egiten d(ir)en deialdi(et)an zehaztuko dira.

Legediari dagokionez, izen-emate epearen amaieran egunean, hots, martxoaren 13an, indarrean dagoena izango da kontuan azterketa zuzentzeko garaian.

Lehen azterketa gainditzen ez duenari ez zaio bigarrena zuzenduko.

- **Lehen ariketa. Froga teorikoa. (Gehienez 20 puntu)**
 - o Derrigorrezkoa eta **baztertzalea**.
 - o Lehen ariketa erantzun aukera anitzeko test galdetegia izango da, Epaimahaiak erabakitzen duenaren arabera. Galderak oinarri hauen II. eranskineko gai-zerrendari buruzkoak izango dira, epaimahaiak erabakitzen duenaren arabera.
 - o Ariketa hau gainditu ahal izateko derrigorrezkoa izango da proba puntuazioaren %50 ateratzea, hau da gutxienez 10 puntu.
 - o Ariketa honetan aztergai izango den materialaren gai zerrenda II. eranskinean jasotzen dena izango da.
 - o Atal honetan, erantzun oker bakoitzak erantzun zuzen baten herena kenduko du; hau da, hiru erantzun okerrekin erantzun zuzen bat kenduko dute. Zuriz utzitako erantzunak ez dira erantzun oker izango.

Atal honetan 20 puntu jaso ahal izango dira gehienez.

- **Bigarren ariketa. Teoriko-praktikoa. (Gehienez 30 puntu)**
 - o Derrigorrezkoa eta **baztertzalea**.
 - o Hautaketa batzordeak jartzen dituen kasu teoriko-praktikoak garatu beharko dira idatziz. Ariketa horiek lotura izango dute deialdiko gai zerrendako gaiekin edo/eta funtzioekin.
 - o Ariketa hau gainditu ahal izateko derrigorrezkoa izango da probaren puntuazioaren %50 ateratzea. (15 puntua).

Atal honetan 30 puntu jaso ahal izango dira gehienez.



- **Hirugarren ariketa. Euskara froga.**
 - o Derrigorrezkoa eta **baztertzalea**.
 - o Izangaien euskara maila neurtzeko dagokion azterketa egingo da.
 - o Deialdian parte hartzeko baldintzetan eskatzen den euskara maila dutela egiaztatu beharko dute.
 - o Ez da punturik emango eta izangaiak gai edo ezgai sailkatuko dira. Froga hau gainditzen ez dutenak hautaketa bidetik baztertuta geldituko dira. Froga honek barne eraginak izango ditu eta Garbitania Zero Zabor S.M.k ez du inongo ziurtagiririk luzatuko.
 - o **Ez dute froga hau egin beharrik izango, parte hartzeko eskaerarekin batera, deialdian ezarritako epean ziurtatzen dutenak 3. hizkuntza-eskakizunarekin parekatutako agiriren batean jabe direla**, betiere, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi marko Bateratura egokitzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak jasotakoaren arabera.

2. Fasea: Lehiaketa-aldia (Gehienez 33 puntu)

Curriculumeko merituen balorazioa. Eskainitako lanpostuarekin harremana duen esperientzia baloratuko da 1. fasea gainditu duten izangaiekin.

Atal honetan, epaimahaiak, ondorengo merituenak balioztatuko ditu, **aurrez adieraziak eta egiaztatutako izan badira:**

a) **Lan-esperientzia: (gehienez 25 puntu)**

1.

Hondakinen atez ateko bilketa edo/eta kale-garriketa zerbitzua eskaintzen duen enpresa publikoan zein administrazio publikoan zerbitzu juridikoetako tekniko zein antzeko postuetan lan egindako hilabete bakoitzeko (30 egun) puntu bat.

Hilabetea baino frakzio txikiagotan lan egindako epealdiengatik jasotako puntu kopurua, arestian, 1. atalean, jasotako baldintzaren baitako zuzenki proportzionala izango da.

Administrazio publikoak edo enpresa publikoak emandako ziurtagirien bidez frogatu beharko da eskarmentua.

Atal honetan **gehienez 10 puntu** emango dira.

2.

Sektore publikoan zerbitzu juridikoetako tekniko zein antzeko postuetan lan egindako hilabete bakoitzeko (30 egun) 0,50 puntu.



Hilabetea baino frakzio txikiagotan lan egindako epealdiengatik jasotako puntu kopurua, arestian, 2. atalean, jasotako baldintzaren baitako zuzenki proportzionala izango da.

Administrazio publikoak edo enpresa publikoak emandako ziurtagirien bidez frogatu beharko da eskarmentua.

Atal honetan gehienez 7,5 puntu emango dira.

3.

Sektore pribatuan hondakinen atez ateko bilketa edo/eta kale-garriketa zerbitzua eskaintzen duen enpresan zerbitzu juridikoetako tekniko zein antzeko postuetan lan egindako hilabete bakoitzeko (30 egun) 0,25 puntu.

Hilabetea baino frakzio txikiagotan lan egindako epealdiengatik jasotako puntu kopurua, arestian, 3. atalean, jasotako baldintzaren baitako zuzenki proportzionala izango da.

Enpresak emandako ziurtagirien bidez frogatu beharko da eskarmentua.

Atal honetan gehienez 7,5 puntu emango dira.

Hasieran esan bezala, orotara lan-esperientzia atal honetan 25 puntu jaso ahal izango dira gehienez.

b) **Prestakuntza: (gehienez 8 puntu)**

Lanpostuarekin zerikusi zuzena duten eta egiaztatutako prestakuntza ikastaroak, jardunaldiak etab., baloratuko dira.

Ez dira baloratuko postua betetzeko eskatzen diren titulazio akademikoak, ezta horiek eskuratzeko ikastaroak ere.

Gehienera 5 puntu emango dira baremo hauen arabera:

1. 20 ordu arte, ikastaro bakoitzarengatik: 1 puntu.
2. 21 ordutik 50 ordu bitarteko ikastaro bakoitzarengatik: 1,5 puntu.
3. 51 ordutik 80 ordu bitarteko ikastaro bakoitzarengatik: 2 puntu.
4. 81 ordutik 150 ordu bitarteko ikastaro bakoitzarengatik: 2.5 puntu
5. 150 ordu gorako ikastaro bakoitzarengatik: 3 puntu
6. C2 hizkuntza-eskakizunarengatik: 3 puntu

Prestakuntza atal honetan gehienez 8 puntu jaso ahal izango dira gehienez.

Lehiaketa bigarren fase honetan 33 puntu jaso ahal izango dira gehienez.



3. Fasea: Elkarrizketa pertsonala (Gehienez 20 puntu)

Derrigorrezkoa eta **ez baztertzaila**.

Deialdi bakarraren bidez egingo da ariketa honetarako deia hautagaiei, Garbitania Zero Zabor S.M.k egindako deialdian jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak -baita ezinbesteko arrazoiengatik bada ere, legeak babesten dituen kasuak salbu-, hauta-prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

Elkarrizketa pertsonala: hautaketa batzordeak elkarrizketa bat izango du aurreko faseak gainditzen dituztenekin. Elkarrizketa lanpostuaren eginkizun eta edukiei buruzkoa izango da. Beharrezkoa ikusten den kasuan, hautaketa batzordeak kanpo entitate pribatu zein profesional independenteengana jo lezake eginkizun hau burutu eta atal hau balora dezan.

Elkarrizketa pertsonalaren bitartez, nortasun-ezaugarri orokorrak eta hautagaien kompetentzia profesionalak ebaluatuko dira, lanpostuari dagozkion funtzioak betetzeko hautagaiaren egokitasuna neurtuko da.

Ariketa honetan gehienez 20 puntu emango dira.

GUZTIZKO PUNTUAZIOAN BERDINKETA GERTATZEAN, ELKARRIZKETAN LORTUTAKO EMAITZA – PUNTUAZIOA- IZANGO DA HURRENKERA ZEHAZTUKO DUENA –ELKARRIZKETAN PUNTU GEHIEN LORTU DUENA GAILENDUKO DA-.

8.- HAUTAKETA-PROZESUA HASTEKO EGUNA ETA HURRENGOAK

Oposaketako ariketak non, noiz eta zein ordutan egingo diren Garbitania Zero Zabor S.M.ko web-orrian argitaratuko dira (<http://www.garbitania.eus>).

Oposizilogileak deialdi bakarrean deituko dira. Azterketara deitua izan, baina aurkezten ez diren oposizilogileak ariketa horretan parte hartzeko eta hautaketa-prozeduran aurrera jarraitzeko eskubidea galduko dute. Arau bera aplikatuko zaie nahitaezko ariketak egiten hasiak direnean agertzen direnei.

Epaimahaiak edozein unetan eskatu diezaieke hautagaiei behar den moduan identifikatu daitezen. Honekin lotuta, ariketa guztietara nortasun-agiria eraman behar da, edo horren baliokidea den identitatea egiaztatzeko dokumentu ofizial bat (pasaporte, gidabaimena...).

Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero hautagaien batek deialdiko baldintza guztiak betetzen ez dituela, hautagaia baztertua utziko du, entzunaldia egin ondoren, eta honen berri emango dio egun berean hautaketa-prozesurako deialdia egin duenari.

9.- ONARTUEN ZERRENDA ETA KONTRATATZEKO PROZEDURA



Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Garbitania Zero Zabor S.M.k, hurrengo hamabost egunen barruan, ebazpena emango du onartutakoen eta baztertuta utzitakoen behin-behineko zerrenda onartzeko.

Ebazpena Garbitania Zero Zabor S.M.ko honako web-orrian argitaratuko da: **www.garbitania.eus**.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da inolako erreklamaziorik jarriko ez balitz. Egon balego, behin betiko zerrenda onartuko duen ebazpen berri batean onartu edo baztertuko dira, adierazitako moduan argira emango dena.

Epaimahai kalifikatzaileak, ariketa bakoitza kalifikatu ondoren, hautaketa prozedura gainditu duten izangaien hurrenkera argitaratuko du. Ariketa bakoitzaren behin-behineko puntuazioaren aurka egiteko 5 laneguneko epea emango da eta epe horretan erreklamaziorik egongo ez balitz, emaitza behin betikoa izango da automatikoki.

Behin betiko zerrenda, behin-behineko zerrenda argitaratutako era eta modu berean argitaratuko da.

Probak egiten diren datan oraindik ez bada egindako errekurtsua ebatzi, eragindako pertsonak azterketa egiteko aukera izango dute, baina azterketak ez du baliorik izango errekurtsua ezesten bada.

Lan-poltsa honen kudeaketa Garbitania Zero Zabor S.M.ko barne arauen arabera burutuko da.

10.- KALIFIKAZIOAK

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa oposizio-aldian, lehiaketa-aldian eta elkarrizketan lortutakoaren baturatik ateratakoa izango da, honek behin betiko puntuazio hurrenkera erabakiko duelarik. Kalifikazioa jendaurrean jarriko da **www.garbitania.eus** web-orrian.

Berdinketa gertatuko balitz, hautaketa batzordeak ondorengo irizpideen arabera jardungo luke, hurrengo hurrenkerari jarraiki:

- a) Elkarrizketan punturik gehien lortu duena
- b) Oposizio-aldian punturik gehien lortu duena
- c) Lehiaketa-aldian punturik gehien lortu duena
- d) Emakumeei emango zaie lehentasuna %40 baino gutxiago direnean. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duen ezaugarriak baditu; kasurako, laneratzeko arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide denean.
- e) Administrazio organo eskudunak aitortutako %33ko elbarritasun maila edo handiagoa duela egiaztatzen duenaren alde



11.-EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA

Epaimahai kalifikatzaileak, hautaketa gainditu duten izangaiekin puntuazioaren arabera hutsik dagoen postua betetzeko pertsonaren eta lan-poltsaren hurrenkeraren proposamena egingo dio Garbitaniako Administrazio Kontseiluari, bertan behin betikoz onartuko direlarik.

Hautatutako pertsonak Garbitania Zero Zabor S.M.k antolatu prebentzio eta segurtasun arloko formazioa jaso beharko du .

12.- KONTRATAZIOA

Hautagaiek bi egun baliodunetan gaitasuna egiaztatzeko eta kontratua egiteko beharrezkoak diren bestelako dokumentazioak aurkeztu beharko dituzte, hautatuak izan direla jakinarazten zaien unetik kontaktzen hasita.

13.- LAN POLTSA

Lan-poltsa eratuko da hautaketa prozesuaren fase guztiak gainditzen dituzten hautagaiekin, antzeko eginkizunak burutzeko langile-premiak betetzeko. Lan-poltsaren gehieneko indarraldiaren epea bost urtekoa izango da, edo deialdi berria egin arteko iraupena izango du.

50 langiletik gorako enpresentzat legeak ezartzen duen desgaituen aldeko erreserba dela eta, lanpostu finko bat estaltzeko beharra sortzen den unean enpresak aipatu obligazioa betetzen ez badu, lan-poltsa osatzen duten hautagaien artean desgaitasun aitortua duen lehenengoari egingo zaio eskaintza.

14.- GORABEHERAK

Epaimahaiak ahalmena du aukeraketa prozesua behar bezala joan dadin, oinarrietan jaso gabeko guztiaren inguruan sor daitezkeen zalantza eta gora beherak aztertzeko eta beharrezkoak diren erabakiak hartzeko.

15. AURKARATZEAK

Interesatuak, deialdi honen, bere oinarrien eta honen ondorioz datorren egintza administratibo ororen kontra, nola Epaimahai kalifikatzailearen jardunetik ondorioztatzen direnen kontra ere, jo ahal izango dute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozeduren 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitakoaren arabera.

16.- IZAERA PERTSONALEKO DATUAK

Izangaiek hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaera aurkezten dutenean, beren eskabidean jasotako datu pertsonalen tratamenduari baiezkota ematen diote, eta baimena ematen dute, halaber, 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzekoak, zazpigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako baldintzetan identifikatuak izateko aldizkari ofizialetan, iragarki tauletan, Garbitaniaren webgunean eta hautaketa prozesua arautzen duten oinarriei jarraituz erabiltzen den beste edozein bitartekotan egin beharreko



argitalpenetan. Era berean, baimena ematen dute Garbitaniak bere datu pertsonalak tratatu ditzan hautaketa prozesutik ateratzen lan-poltsak kudeatzeko.

Hautapen-prozesuan parte hartzean, izangaiek baimena eman dute, baita ere, hautapen-prozesuan zehar aurkeztu behar duten dokumentazioaren tratamendua egiteko.

Izangaiek beste herri administrazio batzuei datuak lagatzeko baimena ematen duten zehaztu beharko dute parte-hartzeko eskaeran. Datu lagapen honek, legez onartutako baldintzetan lan eskaintzak jaso ahal izatea izango du helburu bakar eta eksklusibotzat; onarpena espreski jasotzen ez bada, hori egiteko desadostasuna dagoela ulertuko da.

Hautagaiek emandako datu pertsonalak "giza baliabideak" izeneko tratamendu jardueran sartuko dira. Garbitania Zero Zabor S.M.ren administrazio kontseilua da tratamenduaren arduraduna.

Datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabiltzeko aukera dago eta horretarako idatzia bidali behar da Garbitania Zero Zabor S.M.ren egoitzara (Lastaola Industrialdea 3, a12 eraikina – Ereñotzu Auzoa 20120 Hernani) administrazio sailera zuzenduta.



I. ERANSKINA

ESKABIDEA

SARRERA ERREJISTROA	GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.KO ZERBITZU JURIDIKOETAKO TEKNIKOA: POSTUA GEHI LAN POLTSA

DATU PERTSONALAK

Izen abizenak					
NAN zkia:		Jaioteguna:		Telefonoa:	
Helbidea:				Helbide elektronikoa:	
Herria:		Posta kodea:			
%33ko elbarritasuna edo handiagoa baduzu, adierazi zer egokitzapen berezi behar duzun azterketak egiteko (behar baduzu)					

IKASKETAK

--



EUSKARA

Euskara maila egiaztatzen duen titulua

1HE/PL 1 2HE/PL 2 3HE/PL 3 4HE/PL4 EGA
Besterik / Otros

MERITUAK

LAN ESPERIENTZIA

ADMINISTRAZIOA/ENPRESA	LANPOSTUA	HASIERA	AMAIERA

PRESTAKUNTZA

EMAILEA (Ikastegia, unibertsitatea...)	IKASTAROAREN IZENBURUA	ORDU KOPURUA



ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK

- Hautagaiaren pertsonalitatea eta gaitasuna egiaztatzeko dokumentazioa: nortasun-agiri nazionala edo baliokidea. Kopia konpultsatua.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren originala edo kopia konpultsatua.
- Curriculum Vitaea.
- Hizkuntza eskabideak betetzen direla ziurtatzen duen agiri originala edo kopia konpultsatua.
- Alegatutako merituen agirien originala edo fotokopia konpultsatua.
- Lan-bizitza jasotzen den agiria.
- B Gidatzeko baimena. Kopia konpultsatua.

Behean sinatzen duenak, eskaera hau dagokion aukeratzeko prozeduran onartua izatea **ESKATZEN DU, eta BAIEZTATZEN DU:**

- 1) Bertan azaltzen diren datuak egiazkoak direla eta Oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela. Eskatutakoan agiri orijinal bidez zurituko dituela hitz ematen duelarik.
- 2) Lanpostuen eginkizunak normaltasunez betetzeko gaixotasunik nahiz muga fisiko edo psikikorik ez duela.
- 3) Bateriaezintasunik edo ezgaitasun legalik ez duela, Herri Administrazioaren Zerbitzuan dagoen pertsonalaren bateraezintasuna arautzen duen abenduaren 26ko 53/1984 Legean xedatutakoaren arabera. Dena den, kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezina burutzen ari direnek aukeratzeko eskubidea erabili ahal izango dute, aipatutako legearekin bat etorriz.
- 4) Diziplina espediente bidez estatuko, autonomi erkidegoetako edo toki-erakundeetako zerbitzutik kanporatu ez izana; eta funtzio publikoak betetzeko ezgaitua ez izatea.

DATU PERTSONALAK LAGATZEA

Baimena ematen al duzu zure datu pertsonalak beste herri administrazio batzuei lagatzeko, aldi baterako kontratazioak egiteko erabil ditzaten, betiere hautaketa prozesu honetatik sortzen den lan-poltsan izanez gero?

Bai

Ez



Jakinarazten dizugu ezen zure datu pertsonalak "giza baliabideak" izeneko tratamendu jardueran txertatuko direla, zeinaren arduraduna baita Garbitania Zero Zabor S.M. Datu pertsonalak tratatuko dira hautapen-prozesuan parte hartzeko eskaerak kudeatzeko xedez, eta gordeko dira tratamenduaren helbururako eta erantzukizunak zehazteko egokitzat jotzen den denboran. Era berean, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, egokitzat jotzen den denboran. Era berean, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeke, mugatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dira, helbide honetan eskuragarri dauden formularioen bidez <http://www.garbitania.eus/>

Data _____

SINADURA

II. ERANSKINA

Gaitegia:

1. 9/2017 Legea , azaroan 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena
 - a. Xedea eta aplikazio eremua. Negozio eta kontratu salbuetsiak. Kontratu moten zehaztapena. Erregulazio harmonizatupeko kontratuak. Kontratu administratiboak eta kontratu pribatuak.
 - b. Sektore publikoaren kontratazioaren konfigurazio orokorra eta kontratuen elementu egituratzaileak. Sektore publikoaren kontratazioari buruzko xedapen orokorrak. Alderdiak kontratuan. Kontratuaren xedea, lizitazioaren oinarriko aurrekontua, balio zenbatetsia, prezioa eta prezioaren berrikuspena. Berme exigigarriak sektore publikoaren kontratazioan.
 - c. Administrazio publikoen kontratuak. Xedapen orokorrak. Administrazio publikoen kontratu mota desberdinak.
 - d. Sektore publikoaren beste ente batzuen kontratuak. Administrazio publikoaren izaera ez duten botere adjudikatzailen kontratuak. Botere adjudikatzaileren izaera ez duten sektore publikoko entitateen kontratuak.
2. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena
 - a. Egintza administratiboa: egitea, edukia, arrazoitzea eta forma. Egintza administratiboan ustezko legezkotasuna (39.art.). Egintza administratiboaren eraginkortasuna (39. art.). Egintza administratiboan erabateko deuseztasuna; deuseztagarritasuna; egintzak administrazio bideak berrikustea. Isiltasun administratiboa.
 - b. Administrazio prozedura. Xedapen orokorrak. Pertsonen eskubideak herri administrazioekiko harremanetan. Herri administrazioekiko harremanetarako bide elektronikoak baliatzeko eskubidea eta obligazioa. Administrazio prozeduran interesdun direnen eskubideak. Administrazio prozeduraren faseak: hasiera, antolamendua eta instrukzioa. Interesdunen partaidetza. Amaiera: ebazpena. Amaiera hitzartua. Beste amaiera modu batzuk.
3. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena
 - a. Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa.
 - b. Administrazioen arteko harremanak: hitzarmenak
 - c. Kudeaketa mandatua.
4. 424/2017 Errege Dekretua, apirilaren 28koa, Tokiko sektore publikoko entitateen barne-kontrolerako araubide juridikoa arautzen duena.
 - a. Kontrol finantzarioaren funtzioaz.
 - b. Kontrol finantzarioa exekuzioaz.
 - c. Kontrol iraunkorra.
 - d. Ikuskaritza publikoaz.
 - e. Kontrol finantzarioaren emaitzaz.
5. Hizkuntza ofizialtasun bikoitza Euskadiko Autonomia Erkidegoan. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoa. 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari dagokiona. 86/1997 dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal

Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena

- a. Euskararen erabileraren normalizazioa administrazio publikoan: printzipio nagusiak, hizkuntza eskakizuna, hizkuntza eskakizunen derrigortasuna.
 6. 4/2005 legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako.
 - a. Atarikoa.
 - b. Euskal botere eta administrazio publikoen jarduketan genero ikuspegia txertatzeko neurriak.
 7. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa: I. , II. eta III. Tituluak.
 8. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa. Xedapen orokorrak. Datuak babesteko printzipioak. Pertsonen eskubideak. Eskubide digitalak.
 9. Udalhitz.
 10. Gipuzkoako Bide-Garbiketa Publikoa eta Hiri-Hondakin Solidoen Bilketaren Lan Hitzarmena
 11. Langileen estatutua.
 12. Garbitaniari buruz www.garbitania.eus web-orrian dagoen informazioa.
 13. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa.
 - a. I., II., III. eta V. Kapitulua
 14. Hondakinen 2008/98/EB Zuzentaraua/ 2018ko maiatzaren 30eko 2018/851 zuzentaraua
 - a. I. , II. Kapitulua osoak eta III. Kapitulutik 15,16 eta 22. artikulua
 15. 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra
 - a. III. Tituluko IV. kapitula
 16. 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa
 - a. I. titulutik: I. eta II. Kapitulua
 - b. III. titulutik: I. kapitula, eta III. Kapitulutik 1,3 eta 4 sekzioak
 - c. VI. titula
 - d. VII. titulutik: I. kapitula
 17. 63/2019 Dekretua, apirilaren 9koa, komunitate konpostaje-instalazio eta – jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituena.
 18. 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legea. Lan kontratua. Kontratu motak eta iraupena. Lan kontratua aldatzea, etetea eta iraungitzea:
 - a. 3. sekziotik 6,7,8,9 artikulua
 - b. 4. sekziotik 10,11,12,13 artikulua
 19. 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legea. Obra eta zerbitzuen azpikontratazioa. Langileen lagapena. Enpresaren ondorengotza. Enplegatzailearen subrogazioa.
 - a. 2. Sekziotik 42,43,44 artikulua
- 9/2017 Legea , azaroan 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena.
- a. 98, 130, 214 eta 215 artikulua



a. Birjartze tasa